

METODOLOGIA OHARRAK

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA): EAE

Unibertsoa: 18 urtetik gorako EAEko herritarrak (**1.841.316**)

Lagin teorikoa: **1.200** herritar.

Lagin erreala: **1.201** herritar.

Landa-lana: 2014ko urriaren 1etik 25era egin dugu. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): \pm %2,8 lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0$ hipotesirik

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA): NFK

Unibertsoa: 18 urtetik gorako NFKko herritarrak (**526.492**)

Lagin teorikoa: **400** herritar.

Lagin erreala: **401** herritar.

Landa-lana: 2014ko urriaren 18tik 31ra egin dugu. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): \pm %4,9 lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0$ hipotesirik

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA): Hego Euskal Herria

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Hego Euskal Herriko herritarrak (**2.367.808**)

Lagin teorikoa eta erreala: **1.600** herritar.

Landa-lana: 2014ko urriaren 1etik 31ra egin dugu. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

AKATS TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): \pm %2,4 lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0$ hipotesirik
kontrakoarentzat

IKERKETA TEKNIKA

Telefono bidezko elkarrizketak egin ditugu, egituratutako galdetegiaren bitartez.

Inkestak bi urratsetan egin ditugu.

- Lehenik, zori sistematikoaren bidez telefonoz zein etxeetara deitu, betiere, herrialde zein udalerrietako zonalde bakoitzaren pisua kontuan hartuta.
- Ondoren, etxeetan, kuoten sistema aplikatu dugu sexu eta adinaren arabera oreka ziurtatuz.

LAGINA, AKATS TARTEA, KONFIANTZA MAILA ETA LAGINKETA SISTEMA

Guztira, **1.601 inkesta** egin ditugu Hego Euskal Herri osoan, herrialdeka afijazio ez proportzionalak eginez. Hau da, herrialde guztietan 400 inkesta egin ditugu. Honek \pm **%2,4**ko akats tarte suposatzen du emaitzak unibertso osora estrapolatzerakoan, hau da, Hego Euskal Herri osora, %95,5eko konfiantza mailan, $p=q$ denerako.

Azpi-laginei buruzko datuak estrapolatzerakoan, noski, akats tarteak handiagoak izango dira, baina kasu honetan, herrialdeka lagin nahikoa dugu emaitza propioak eskaini ahal izateko. Herrialde bakoitzaren daturako \pm **%5,0**ko akats tarte suposatzen du emaitzak herrialde bakoitzaren unibertso osora estrapolatzerakoan, %95,5eko konfiantza mailan, $p=q$ denerako.

Laginketa polietapikoa eta estratifikatua egin dugu, herrialde bakoitzaren barruan konglomeratu estratifikazioa sortuz (batetik, herrialde bakoitza eskualdeka banatu dugu eta, bestetik, eskualde bakoitzaren barruan herri tamainaren arabera 5 estratu sortuz; 2000 biztanle edo gutxiagoko herriak, 2.001-10.000 artekoak, 10.001-50.000 artekoak, 50.001-100.000 artekoak eta 100.001 baino gehiagokoak), laginketarako lehen mailako unitateak (herriak) zoriz hautatuz.